

Goi Mailako
Lanbide
Heziketa

Ostalaritza
eta turismoa

Agentzietako eta ekitaldien kudeaketako goi mailako teknikaria



Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza

El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Agentzietako eta ekitaldien kudeaketako goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Turismoko zerbitzuak eta produktuak saltzea

- Turismoko zerbitzuak eta bidaiak saltzea.
- Bidaia agentzietako kudeaketa ekonomiko-administratiboa garatzea.
- Turismoaren arloko informazio eta banaketa unitateak kudeatzea.
- Turismo jardueretan ingelesez komunikatzea, erabiltzaile independentearen mailarekin.

Bidaia konbinatuak eta ekitaldiak sortu eta kudeatzea

- Bidaia konbinatuak, txangoak eta lekualdaketak prestatu eta gauzatzea.
- Ekitaldiak kudeatzea.
- Turismoaren arloko informazio eta banaketa unitateak kudeatzea.
- Turismo jardueretan ingelesez komunikatzea, erabiltzaile independentearen mailarekin.

Osatu gabeko lanbide kalifikazioak

Tokiko turismoa sustatzea eta bisitariari informazioa ematea

- Turismoaren arloko informazio eta banaketa unitateak kudeatzea.
- Turismo jardueretan ingelesez komunikatzea, erabiltzaile independentearen mailarekin.
- Turismoaren arloko informazioa kudeatzea.

Turistak eta bisitariak gidatzea

- Jardun esparruan kultura-interesa duten ondasunak eta ondarea interpretatzea turistei eta bisitariari.
- Jardun esparruko naturguneak eta natura-interesa duten beste ondasun batzuk interpretatzea turistei eta bisitariari.
- Gidaritza eta animazioko turismo zerbitzuetan ingelesez komunikatzea, erabiltzaile trebearen mailarekin.
- Gidaritza eta animazioko turismo zerbitzuetan ingeleza ez den atzerriko hizkuntza batean komunikatzea, erabiltzaile trebearen mailarekin.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es

Ostalaritza eta turismoa

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek turismo sektorean egiten du lan, bidaia agentzia txikizkarien, handizkarien eta handizkari-txikizkarien azpisektorean, baita harreran eta ekitaldietan espezializatutako agentzietan ere. Beren konturako langileak dira, beren bidaia edo ekitaldi agentzia kudeatzen dutenak, edo besteren konturako langileak, bulegoko eta/edo saileko langile edo buru gisa lan egiten dutenak, honako arlo funtzional hauetan: administrazioa, erreserbak, turismoko zerbitzuak, produktuen salmenta eta ekitaldiak.

Hauak dira jarduera eta lanpostu aipagarriak:

- Bidaia agentziako bulegoko burua.
- Bidaia agentziako saileko burua.
- Bidaia agentea.
- Bidaia aholkularia.
- Ekitaldien antolatzailea.
- Bidaia zerbitzuen eta bidaia programatuen saltzailea.
- Turismoko zerbitzuen eta bidaien sustatzaile komertziala.
- *Booking* edo erreserba saileko langilea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Turismo merkatuaren egitura.
- Protokoloa eta harreman publikoak.
- Turismo arloko marketina.
- Helmuga turistikokoak.
- Baliabide turistikokoak I / II.
- Turismoko produktuen kudeaketa.
- Turismoko zerbitzuen salmenta.
- Turismo bitartekaritzako entitateen zuzendaritza.
- Ingelesa I / II.
- Frantsesa I / II.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Bidaia agentzien proiektua eta ekitaldien kudeaketa.
- Lantokietako prestakuntza.